

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

HARANeko UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, 2018koa. Ordaintzeko epearen hasiera

2018ko otsailaren 1etik otsailaren 28ra bitarteko egun baliodunetan (biak barne) prest egongo dira trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari dagozkion 2018ko ordainagiriak, borondatezko epean ordaintzeko.

Zerga hori ordaindu behar duten zergadunek ordainketa ez badute banketxean helbideratuta, udal bulegoetan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era.

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek, zerga aurreko urteetako banku kontuan helbideratuta izaten jarraitzen badute, ez dute inolako izapiderik egin behar, udala arduratuko baita ordainketa izapidetzeaz.

Gomendatzen da zergadunek ordainketa banku erakundeetan helbideratzea.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, indarrean dagoen zergabilketako arautegi orokorraren arabera, eta ordaindu ez diren kuotak ehuneko 20ko erre-karguarekin kobratuko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Harana, 2018ko urtarrilaren 19a

Alkatea

PEDRO SAN VICENTE CORRES